



**Udal aldizkaria**

**2017ko ekaina. 6. alea**

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

## **AURKIBIDEA**

**GOIZUETAN BADA 2**

**ZUBIMUXU 3**

**ETXEBIZITZA 4**

**MENDIA 6**

**UDALA 7**

**MOTX-MOTXEAN 8**

**HURRENGO HITZORDUAK 8**

“Euskara eta kulturako zinegotziak  
kargua utziko du” / 7

# **ZUBIMUXU ATERPETXEA KUDEATZEKO KONTRATAZIOA**

Proposamenak aurkezteko epea uztailaren  
6 arte irekia dago / 3



Goizuetako Udala



## “Goizuetan bazen”etik “GOIZUETAN BADA”ra


**Nafarroako Gobernuko Landarte programaren baitan Trabukoren antzezlanaren berreskuratuko da Goizuetan uztailaren 1ean.**

Nafarroako zortzi herritan gauzatuko da Nafarroako Gobernuko Kulturako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako arte eta landartasun programa eta Goizuetako herri horietako bat. Arte-diziplina ezberdinak uztartzen dituen programa da hau eta sorkuntzan oinarritutako tailer parte-hartzaileak sustatzea du helburu.

Goizuetan, orain dela 27 urte herriko biztanleekin antzeztu zen Trabuko antzezlanaren gauzatuko da berriro, baina ikuspuntu berritzaile batekin eta antzerki hizkuntza garaikidea erabilita.

Olatz Beobide artistaren zuzendaritzapean dabilza azken hilabete hauetan hainbat herritar burubelari antzerkia prestatzen.

Trabukoren abestiak hainbat moldaera izan baditu ere, uztailaren 1ean, antzerkiaren bertsio berritua ikusiko dugu, arte garaikidean eta herri partaidetzan oinarritutako “Goizuetan bada” antzezlanaren. Lantaldeak ikuskizunera etortzeko gonbitea luzatzen dizue.



“1990ean lortutako arrakasta errepikatuko ote da?”



“Goizuetan bazen”  
1990ean Leitzan egindako emanaldia.

- Gidoigilea:	Isaak Etxeberria
- Antzezleak:	Prudentzio: Joxe Mari Salaberria Bisente: Aitor Miranda Manala: Maite Ortigosa Modesto: Itaki Etxegia Injini: Igor Elizegi Katalin: Leyre Altsua
- Trabuko:	Isaak Etxeberria
- Frailea eta Guardiariak:	Iljo Elizegi
- Guardiariak II:	Jose Ramon Zabietza
- Langile I eta Kaboa:	Rosa Mari Olainola
- Langile II:	Mari Jose Aizpuru
- Langile III:	Eba Elizegi
- Langile IV:	Agurtzane Goizuetako
- Langile V eta Atso I:	Oriana Eskalero
- Dendaria eta Monagilua:	Maite Altsua
- Atso II:	Bakartxo Iruiz
- Atso III:	Pili Elizegi
- Aukerlea eta zuzendaria:	Isaak Etxeberria
- Jazkerak eta materiala:	Maite Altsua Maite Ortigosa
- Dekonatak:	Rosa Mari Olainola

1990eko fitxa artistiko-teknikoa.

“Zein izango ote da aurtengoa?”

**“Goizuetan bada”**

**antzerkia**

**Eguna:** Uztailak 1

**Ordua:** Iluntzean

## Zubimuxu aterpetxea kudeatzeko kontratazioa

**Zubimuxu aterpetxearen zerbitzua alokairu bidez kudeatzeko proposamenak aurkezteko epea uztailaren 6 arte irekia dago.**

Bi urte eta erdi inguruan udala zuzenean kudeatzen egon ondoren, maiatzaren 30eko Udalbatzaren Osoko Bilkuran Goizuetako Zubimuxu aterpearen zerbitzua alokairu bidez esleitzea onartu zen ondoren zehazten diren baldintza hauetan:

Ondorengoak dira betebeharreko baldintza batzuk:

**Prozedura:** Aterpea esleitzeko prozedura irekia izango da.

**Iraupena:** Kontratuaren iraupena 3 urtekoa izango da, eta urtero luzatu ahalko da, 6 urtez, gehienez ere 9 urte egin arte.

**Kontratuaren prezioa:** Gutxienez 3000€ (BEZa barne) eta gehienez 4000€ izango da urteko Zubimuxuren alokairua.

**Euskararen ezagutza:** Kontratatu den pertsonak zerbitzua euskaraz eskaini beharko du eta udalak, hori kontrolatzeko eskumena izango du.

**Proposamen eskaintzaren aurkezpena:** Aurkezten direnek beraien proposamenak Goizuetako Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dituzte jendaurreko ordutegiaren barruan (9:00-12:30). Posta bidez edo korreo elektronikoz ere egin ahalko da ([udala@goizuetako.eus](mailto:udala@goizuetako.eus)).

Administrazio-baldintzen ple-guak osorik irakurri nahi izanez gero, [goizuetako.eus](http://goizuetako.eus) webgunean daude.

**Lizitaziorako irizpideak:**

- a) Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.
- b) Eskaintza teknikoa: 50 puntu.
  - Aterpetxearen kudeaketa proiektuaren deskribapena: 30 puntu.
  - Goizuetako turismoaren dinamizazio eta promozio plana: 20 puntu.



Zubimuxu aterpetxeak sukaldeko zerbitzua ere badu orain.



## KONPROMISOAK BETETZEN GOAZ

### Etxebizitza eta lokalen tabloia

Udalak Goizuetan alokatzeko eta saltzeko dauden etxebizitza eta lokalei buruzko atal berria sortu zuen apirilean. Atal hau [www.goizueta.eus](http://www.goizueta.eus) webgunean ikusi daiteke, eta bertan, Goizuetan alokatu eta saltzeko dauden etxebizitza eta lokalei buruzko informazioa dago, interesa duen orok eskuragarri izango duena. Dagoeneko 16 eskaintza daude argitaratuak: 14 etxebizitza, borda bat eta lokal bat.

Udalaren asmoa tabloi hau ahalik eta osatuena edukitzea da. Horregatik, eskaintzen den informazioa aldagarria izango da eta etxebizitza edota lokalen bat eskaintzan jartzeko interesa duen edonork edozein momentutan izango du horretarako aukera.

Goizuetan hutsa duzun, erabiltzen ez duzun edota behar ez duzun etxe edo lokal baten jabe bazara, eta erabiltzeko interesa duen norbaiti alokatu edo saldu nahi badiozu, idatzi [etxebizitzabatzordea@gmail.com](mailto:etxebizitzabatzordea@gmail.com) helbidera edo jarri zuzenean udalarekin harremanetan.



Etxebizitza eskaintzen tabloia.

### Udala, Nafarroako Gobernu eta Nasuvinsarekin bildu zen

Maiatzean udaleko Itsaso Lujanbio zinegotzia, Miriam Arozena idazkaria eta Elena Irigoien Cederna-Garalurreko eskualdeko garapen agentea, Nafarroako Gobernu Etxebizitza departamentuko eta Nasuvinsako zenbait ordezkariarekin bildu ziren. Ordezkariorien artean zeuden Etxebizitza departamentuko Javier Etayo eta Nasuvinsako Jose Mari Aierdi.

Beste hainbat gairen artean, Goizuetan etxebizitzaren inguruan egindako lanketa aurkeztu genien eta ospitalaren inguruan ere hitz egin genuen; proiektuaren inguruan egon zitezkeen aukera ezberdinak aztertu eta kasu bakoitzean jaso genitzakeen diru laguntzak ikusi.



Etxebizitzari buruzko bilera Iruñean.

### NASUVINSAREN bidez etxebizitzak modu seguruagoan alokatzeko saio informatiboa

Ekainaren 15ean burutu zen etxe hutsa izan eta alokatu nahi dutenentzako saio informatiboa. Nafarroako Gobernu Etxebizitza departamentuko Javier Etayo eta Nasuvinsako Jose Mari Aierdi ordezkariak izan ziren hizlari eta Goizuetan etxe hutsa dutenek Nasuvinsaren bidez alokairuan jartzeko aukerari buruz aritu ziren.



### Ospitalean etxebizitzak egiteko proiektua aztertzen hasiko gara

Duela 6 urte udalak ospitalean sei alokairuko etxebizitza egiteko proiektua egin zuen. Baina eraikuntzaren egoera asko aldatu da azken urte hauetan, eta proiektuak, egungo egoerara egokitzea eskatzen du. Moldakuntza hauek tarteko, eta etxebizitzari buruzko inkestetan jasotako emaitzen arabera, egungo beharrak zein diren aztertu eta proiektua moldatzea da udalaren nahia.

Aste honetan bildu gara udala eta proiektua egin zuen Enrique Miranda arkitektoa, proiektua bera aztertu eta eraikuntzari eman litzazkiokkeen irtenbideak aztertzeko. Betiere, kontutan hartu behar dugu Manuelenea eraikuntza erabilera soziale-rako erabiltzeko baldintzatua dagoela eta hau ere kontutan hartu behar dela.

Nafarroako Gobernuarekin ere harremanetan bagaude diru laguntzen inguruan. Beraz, aukera ezberdinak aztertu eta beharrak zein diren baloratuz, ikusi behar da ospitalean egingo den obra nolakoa izango den.



Ospital zaharraren egungo itxura.



## ZABORTEGIKO INGURUMENA BERRESKURATUKO DA

**Nafarroako Gobernutik eskatu bezala, zaborte-gia behin betiko itxiz, bere ingurumena berreskuratu-tuko da.**



Astlehenean amaitu zen obrara esleitzeko eskaintzak aurkezteko epea eta sobre irekierekin, jasotako eskaintzak aztertzen gabiltza.

Obra hau esleitzeko ateratako pleguetan eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresa 50 puntu-rekin baloratuko da eta eskaintza tekniko onena egiten duena, beste 50 punturekin. Obra lan hauek Nostratec enpresako Jesus Ignacio Diego Pereda ingeneriak idatzitako proiektuan aurrekusiak daude.

### Aurrekontuan aldaketak

2017ko udal aurrekontua onartu zenean aipatu genuen zaborte-giko obra aurten egingo zela, nahiz eta aurrekontuan ez genuen jaso diru-sarrerekin parekatze-ko aukerarik ez genuelako. Behin aurrekontuak onartuta, urtean zehar aldaketak egin daitezke udal batzarrak hala erabakitzen badu, eta halaxe egin zen apirilko ple-noan.

Zaborte-giko obraren lizitazio prezioa 647.100,01€ da, bez-a barne, eta proiektuaren erredakzio eta direkzio gastua 32.186,00€, bez-a barne. Nafarroako Go-bernuak, guztiaren %80 ordainduko du diru-laguntza bi-dez eta gainerakoa udalak ordainduko du.

Lanak egiteko epea 2 hilabetekoa izango da.

### MALDAMALKOR PARA-JEAN %100 DIRUZ LA-GUNDUTAKO LANDAKE-TA EGINGO DA

Nafarroako Go-bernuko Landa Gara-pen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Depar-tamentuko mendietako atalak, Goizuetako Mal-damalkor mendian egin behar duen landaketa lanak egitea onartu zen maiatzeko ohiko batza-rean.

Nafarroako Gober-nua arduratuko da lan-daketa lanez eta ondoren-go bost urteetan, udalak egin beharko ditu mantentze lanak. Orain-dik zenbat izango den ez dakigun arren, bost urte hauetako zainketa lanak ere diruz lagunduak izan-go dira.

Nafarroako Gober-nuak mendian inbertitze-ko urtero ematen dituen dirulaguntzen barruan sartzen da.



## EUSKARA ETA KULTURAKO ZINEGOTZIAK KARGUA UTZIKO DU

Zuriñe Lujanbio euskara eta kulturako zinegotziak udaleko bere kargua utziko du. Ekaineko ohiko batzarrean onartuko du udal taldeak bere dimisioa.

Aldizkariko tartetxo hau berarentzat gorde dugu bere esperientzia kontatu eta eman nahi digun azken mezuaren berri emateko.

### Nolakoa izan da bi urte hauetako zure esperientzia udalean?

Esperientzia aberasgarria izan da. Legealdi hasieran nituen helburuak eta dinamikak martxan jartzeko aukera izan dut eta udal funtzionamendua ezagutzekoa ere bai; erabaki garrantzitsuak hartzen dira.

Batzuetan burokrasia eta lege gaiengatik gauzak egi-tea eta aldatzea erraza ez izan arren, daukaguna balo-ratzen ikasteko aukera ere eman dit.

Herriko ia ekintza guztietan parte izan naiz eta harro sentitzen naiz. Herri txikia gara baina ekintza ugari dau-de, beti daukagu eskuartean zerbait. Herriarentzat ona da hori baina aldi berean, ardura eta konpromiso maila handia eskatzen du.

### Erabaki erraza izan al da kargua uztea?

Ez da erraza izan. Hilabete batzuetako hausnarketaren ondoren hartutako era-bakia izan da. Hasieran nituen ilusioak oraindik ere baditut, taldekideak eta nire alor-rak (euskara eta kultura) uzteak ere kezka sortzen dit, baina nire egoera per-sonalak ez dit ahalbidetzen udalak eskatzen duen konpromisoa eta erritmo maila jarraitzeko. Niretzat eta herriarentzat hartu dudana erabakia onena dela uste dut.

### Zer mezu eman nahi diezu herritarrei?

Lehenik eta behin, eskerrak bide lagun izan zaretenoi. Plazer bat izan da herriko ekintzen erabakietan parte izatea eta, lana egiteaz gain, zuekin egin dudana harre-mana. Baina herria aktibo mantendu nahi bada, beharrezkoa da herritar guztien konpromisoa. Jende ezberdina eta anitza inplikatzen bada, gauza zoragarriak egin daitezke. Beraz, zinegotzi karguan jarraituko ez badut ere eta atsedenal-di baten beharrean egon, herrigintzan jarraituko dut. Deia egiten dizuet zuek ere nahi duzuen herria eraikitzen hasteko eta antolakuntzara bat egiteko.



# MOTX-MOTXEAN

## ALDUNTZIN GARBI

Kostata baina badirudi ulertu dela Alduntzingo zaborrontziak dauden lekua ez dela bolumen handiko zaborrak uzteko tokia. Martxoan “Mesedez, zaborrik ez utzi edukiontzitik kanpo” kartela jarri zen arte ia astero agertzen zen bolumen handiko zerbait lurrean botata. Baina kartela jarriz geroztik, garbi dago ingurua. Jarrai dezagun horrela!




## “GOIZUETAKO DOKUMENTU ZAHARRAK” LIBURUA

Patziku Perurena idazleak argitaratu duen azken liburua da honakoa. Maiatzaren 19an aurkeztu zuen herritarren aurrean eta 1324-1918 artean Goizuetan jasotako agiriak biltzen ditu. Denetatik baldin badu ere, etxea eta jendea du bihotz eta ardatz eta herria maite duen edozeinek irakur lezake. Pamiela argitaletxearekin argitaratu du eta 26€-ren truke Udaletxean eskuratu daiteke.



## UDALA ETA DOBERAREN ARTEKO HITZARMENA

Hernaniko Dobera Euskara Elkarteak eta Goizuetako Udalak lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Doberaren bidez argitaratzen da aspalditik Goizuetan ere jasotzen dugun Urumeako Kronika. Bai batak eta bai besteak helburu berdinarekin bat eginik, bailarako herritarrei informazioa euskaraz ematea, hitzarmena sinatu eta 500€-ko diru-laguntza emango dio Udalak Doberari.



## SEINALE BERRIAK BASAKABIN

Udalaren eskaerari erantzunez, seinale berria jarri du Nafarroako errepideen zainketa zerbitzuak. Seinale honen bidez, Basakabi-ko bidegurutzera iritsi aurretik, Goizuetara nondik joaten den ikusiko da, eta zama handia duten kamioiak ere errepideaz informatuko dira.



## HURRENGO HITZORDUAK

**2017-06-27** 19:00. BATZAR OROKORRA.  
Batzar aretoa.

**2017-07-01** 20:00. “GOIZUETAN BADA”  
ANTZERKIA.

**2017-07-15** KARMEN BEZPERA. Plaza.

**2017-07-25** 19:00. BATZAR OROKORRA.  
Batzar aretoa.

**2017-08-13/18** GOIZUETAKO FESTAK.

**2017-08-28** SAN AGUSTIN EGUNA.  
Artikutza.